

## GIG 18

## THANETIARREKO OINAZPIKO ESTRATOTIPOA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 2

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Selandiarraren eta Thanetiarraren arteko mugaren estratotipoa (GSSP) Selandiarrereko oinazpiko estratotipotik 30 metro ingurura dago ipar-ekialderantz, kanal tupatsu baten gainaldean.

Mugaren estratotipoa arroken polaritate magnetikoaren aldaketa batek zehazten du, 26R-tik 26N-rako aldaketak, hain zuzen ere, eta 58,7 milioi urteko adina markatzen du. Irizpide horri esker, erraz egin daiteke azaleramendu honen eta adin bereko beste batzuen arteko korrelazioa. Mugatik behera, metro eskas batera eta kanalaren zatirik tupatsuenenean, Mid Paleocene Biotic Event (MP-BE) izeneko dago: komunitate planktonikoen eta bentonikoen aldaketa garrantzitsu batek definitzen du, eta badirudi 10.000 urte inguru iraun zuen berotze globalaren ondorioa dela.

2010. urteko maiatzaren 6an, International Commission on Stratigraphy erakundeko kide batek urrezko iltzea jarri zuen Zumaian, muga horren estratotipoa dela adierazteko; hots, munduko mugaredua dela adierazteko. Horrenbestez, hondartza horrek Lurraren historian berebiziko garrantzia duela esan daiteke. Nazioartean, GSSP (Global Stratotype Section and Point) esaten zaio estratotipoari, eta urre-koloreko iltze baten eta identifikazio-plaka baten bidez dago adierazita.

## NOLA BERTARATU

Thanetiarrereko oinazpiko estratotipoa Itzurun hondartzaren hego-mendebaldean dago. Hondartzara jaitsi eta ezkererantz joan behar da oinez, identifikazio-plaka ikusi arte.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ.*



Thanetiarrereko oinazpiko estratotipoaren kokapena.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 559956 m / Y= 4794336 m / Alt.= 7 m



Nazioarteko estratotipoa adierazten duen urre-koloreko iltzea, gertutik ikusita.